

2006ko urtarila

45. zenbakia

Aikrr!

txorierriko aldizkaria



Iñaki Gaminde, ikerlaria

**“Hizkuntza ez da berba
egite hutsa, mundu
baten ardatza baino”**

Argitaratzailea: TOTOAN, Txorierriko Euskara Elkarteen Federazioa
(Lagatzu, Zorritzketan, Arrekikili, Tximintx)
Tf.: 94 452 34 47
e-posta: aikortxori@yahoo.es

Zuzendaria: Xabier Goienetxe

Erredakzio burua: Itxaso Marina

Erredakzio taldea: Fernando Larrondo, Jose Angel Mentxaka, Alberto Legarreta, Gaizka Eguskiza, Mari Tere Onaindia, Amagoia Guezuraga, Belen Gana, Pospolin eta Aritz ta Nagel

Kolaboratzaileak: Iñaki Bilbao, Lurdes Lasuen, Asier Oruetxebarria, Juan Luis Goikoetxea, Imanol Alvarez, Joseba Butron, Fernando Olabarrieta eta Gaizka Peñafiel

Zuzentzaileak: Alberto Mtz. de la Cuadra, Iñaki Astorkiza eta Jagoba Zallo

Publizitatea: Arantza Atxutegi

Banaketa: Arantza Atxutegi, Gaizka Eguskiza

Maketatzailea: Gaizka Eguskiza

Inprimategia: Gertu

Ale kopurua: 5.000

Lege gordailua: BI 137-02 ISSN 1578-9322

AIKOR! aldizkariak ez dau bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota eritxien erantzukizunik.



diruz lagundutako aldizkaria



14 Behar Bidasoa



26 Sondikako Harrizulatzaila taldea



14 Liliak, erakuslehorik ederrena



22 Urrezko Q Txorierri Politeknikarentzat

AURKIBIDEA

4Eritxia **5**Gutunak **6**Laburrak eta albisteak **11**Gurean izan da... Andoni Egaña **12**Gazteen txokoa **13**Gaztea eta... Beñat Lekue **14**Behar Bidasoa GKE, Txorierri Institutuan **20**Txozna, antzinako denda taberna **21**Aitor Aurrekoetxea **22** Urrezko Q Txorierri Politeknikarentzat **24**Liliak, erakuslehorik ederrena **26**Sondikako Harrizulatzaila taldea **28**Osasuna **29**Teknologia **30**Musika **31**Txorierri ezagutu **32**Sukaldaritza **33**Denborapasa **34**Agenda

Zilegitasunaz



IMANOL ALVAREZ
(Filosofia ikaslea)

Ceuta eta Melillako azken gertakarien ildoan inmigrazioa hizpide zuen eztabaida bat ikusi nuen orain dela gutxi telebistan. Egia esan, ez ninduen batere harritu PP eta PSOEko ordezkariak, bertan zeuden kazetari eta adituen baimen osoz, Espainiako etorkizun demografikoa bermatzeko aurkeztu zituzten super-estrategiak... estatuaren kohesioa lurraldean nahien gainetik mantendu behar den moduan! Garai batean justizia bilatzeko asmoz sortu zenak asmoa galdu du jada. Ekonomiaren morroi hutsa bilakatu da XXI. mendeko zirko politikoa eta iparraldeko, nahiz eta plantak egin, ez gaude gure luxuak galtzeko prest. Zilegitasuna, eztabaida orotan agertu beharko lukeen lehen ideia lekuri gabe gelditu zaigu eta ez bakarrik politikarien artean... kezkagarria behintzat.

Bat-batean, azken aldi honetan buruan bueltaka dudanarekin lotu nuen hau guztia eta Ruben Iglesiasek idatzitako artikulua bat gordeta nuela etorri zitzaidan burura. Erich Fromm psikoanalista esan omen zuen estreinakoz banako baten izaera testuinguru sozialak baldintzatzen duela, banako ezberdinen izaerek izaera kolektibo hau eratzen dutelarik. Honen ostean bota zuen aholkua ahaztu zaigu orde: "...ondorioz,

tresnak eta makinak produzitzeaz gain, borondate hutsaren bultzadaz gizartearen onura bilatzen duten banakoak "produzitzeaz" ere ardura behar da gizartea".

Heziketaren egunerokoa bizi dutenek gaurko ikasleok dugun kritikotasun falta salatu ohi dute. Konformismoa da gaurko gazteen artean nagusitzen den sentimendua, pentsamendu kritiko ezak eta iritziak argudiatzeko gaitasunaren gabeziak sortzen duen konformismoa. "Haurrentzako filosofia" proiektutik baloreen eta zilegitasunaren azterketa umetatik lantzea egoera honi aurre egiteko irtenbide interesgarri bat dela uste dugu, ez nahikoa baina bai beharrezkoa.

Gure gizartea oinarritzen duten demokraziaren dogmek, eztabaida argudiatuetarako gaitasuna duten banakoen beharra dute, umetatik sustatzen ari ez garena hain zuzen ere. Programa honen helburua gogoetaren haziak haurren buruetan uztea da, indibiduoek behar duten gogoetarako gaitasunaren haziak.

Metodologiari dagokionez filosofia modu narratiboan aurkeztean datza "haurrentzako filosofia"k dakarren berritasun handia. Modu ez zuzenean, narrazioaren protagonistei gertatzen zaizkien bidez, hausnarketa eta arrazoizko eztabaidak bultzatzeko prestatuak dauden ipuinak irakurtzen dira ume edo gazteen artean. Hau honela, haurrek rol aktibo bat hartzen dute klasean, helburua eztabaida gidatua delarik. Txikienei zuzentzen den "haurrentzako filosofia" berezitasun asko ditu eta haurren dimentsio afektiboa indartzean zentratzen da izaera, identitatea... moduko kontzeptuak landuz.

Errealitatea etengabeko berrikuntzan dagoen eraikina da eta akordioek soilik altxatuko dute. "Horrela delako" ez da argudio baliagarri bat.

Irakurri eta ondo berba egin



JOSEBA BUTRON
(Irakaslea)

Urte berria asmo berriak. Euskaldunontzat ez da gatxa geure buruari urte berrirako erronkaren bat jartzea. Hainbeste daukagu-eta beti egiteko! Eta guk egiten ez badugu, nork egingo du ba! Horregatik ba, hona proposamen bi.

Bata da apur bat gehiago irakurtzea. Baina euskaraz. Izan liteke iaz baino libururen bat gehiago irakurtzea, edo, izan liteke, baita, denbora apur bat gehiago emotea irakurtzeari. Izan ere, ez sinestekoa da zelan aberastu daitekeen norberaren barne-mundua irakurmenaren bidez. Zenbat pentsamendu, sentimendu, istorio, kontu... dagoen tintazko letra horietan! Euskaraz irakurtzen ez duenak ezin du imajinatu ere egin zenbat galtzen duen. Horretarako, jakina, ez da komeni Francoren denboratik hona dauden egunkari erdarazko hutsak erostea. Ohitura batzuk noiz edo noiz aldatzeko erabakia ere hartu behar da.

Bigarren proposamena da berba egiteko modua hobetzea. Izan ere, "euskañola" baino berbeta penagarriagorik ez dago. Zera esan gura dut, euskaraz hasi eta ezintasunagatik edo utzikeriagatik, erdarazko esaldiak tartekatu. Egon badaude euskarazko modu ederrak edo zer adierazteko, baina nagikeriagatik-edo, batzuen hizkera benetan lotsagarria gertatzen da: hasi zeozer esaten euskaraz eta atoa sartu erdarazko esakeraren bat, berriro euskara apur bat, eta berriro erdarazko ateraldiren bat. Ohitura galgarri hori gainditzeko urte ona izan daiteke aurtengoa. Denon onerako.

Zeure eritxia agertu gura badozu, gutunen atal hau zabalik daukazu. Ahalik eta eritzi gehienek lekua euki dagien, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta nortasun agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, Aikor!-ek bere esku dauka horretarako eskubidea. Zure eritxia aginduteko helbidea: Totoan, Aresti kalea 2, 48170, Zamudio edo aikortxori@yahoo.es

Toki telebistan ere euskara aurrera

Toki telebista digitalaren garapenerako kontzesio administratiboaren prozesua abian du Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak. Dekretuaren zirriborroa herritarren jakinera jarria izan da, hain zuzen ere behin-betiko dekretua onartu eta argitaratu aurretik hala nahi duen guztiak bere iritzia eman ahal izan dezan.

Hiru dira tokiko telebista digitalaren garapenerako prozesua arautzerakoan Kultura Sailak kontuan izan dituen helburu nagusiak, helburu horiek direlarik aldi berean tokiko telebista digitalaren ezauzgarri behinenak: informazio lokala, eduki propioak eta euskararen lekua.

Une honetan Euskal Autonomia Erki-degoan ditugun behin behineko toki telebistei erreparatzea nahikoa da ikusteko gehienek gaztelania hutsean emititzen dutela, eta egungo telebista lokalen lautik bat eskas direla euskaraz jarduten dutenak. Hemendik aurrera, nahitaez, toki telebista guztietan, pribatuetan zein publikoetan, izango du presentzia euskarak, presentzia duina gainera. Titular pribatuen kasuan gutxienez telebistaren eremuko euskaldunen portzentajearen adinakoa, eta titular publikoen kasuan gutxienez %50ekoa, inoiz ez gutxiagokoa, izango da euskararen presentzia, eta hortik gorakoa euskaldunen portzentajea handiagoa denean. Eta hortik gora nahi adinako lekua izan dezake euskarak, euskara hutsezko telebista egiteraino, guztiei eskatuko zaizkien bideragarritasun baldintzak betetzen diren heinean.

Bada, beraz, argi eta garbi esan beharreko zerbait: Kultura Sailaren dekretu zirriborroak ez dizkio ateak itxi euskara hutsezko telebistari, irekita baitaude ate horiek; ateak itxi gaztelania hutsezko telebistari itxi zaizkio, ez baita euskararik gabeko gaztelania hutsezko toki telebista digitalik izango. Gainera, lehiaketako puntu-banaketa egiterakoan kontuan hartuko da gutxienezkotik goragorako euskararen presentzia, bereziki eta modu erabakigarrian baloratzearaino osorik euskaraz jardungo luketen telebista-proiektuak.

Exijentziei dagokienez, bestalde, agente pribatuei baino exigentzia altuagoa ezarriko litzaieke udalei. Izan ere, uste baitugu euskararen erabilera bultzatzeko jardunean gizarteko agente pribatuei baino



konpromiso eta ahalegin handiagoa eskatu behar diogula herri-aginteok geure buruari, besteak beste ispilu eta eredu izan gaitzen.

Gure iritzian orain bi aldetako erronka da euskal gizarteak aurrez aurre duena: alde batetik, euskararen presentzia ahalik eta zabalena bermatzeko gai izango diren proiektu bideragarriak eratzea, eta, bestetik, euskarazko emisioetarako ikus-entzuleak irabaztea.

Progresibotasuna aurreikusten da hizkuntza helburuak osorik betetzerakoan, zaila baita guztia gauetik goizera lortzea. Horretan ere gogora ekartzekoa da Mitxelena gomendio hura, "handikeriazko menturarik gabe" jarduteko gomendioa alegia.

Kataluniari buruzko erreferentziak azaldu dira zenbait adierazpenetan, eta horiei buruzko aipamen batekin bukatu nahiko genuke. Irakurri ahal izan dugunez, katalanaren betebeharra euskararena baino altuagoa omen da tokiko telebistetan. Hori, ordea, ez da horrela. Emisioen %50a gutxienez katalanez izatea da Kataluniako betebeharra, nahiz eta elebidunen indizea hori baino dezente handiagoa izan han. Hemen udal guztiei eskatzen zaie %50eko gutxienezkoa, eta, Katalunian ez bezala, hortik gora eskatzen zaie udalei nahiz pribatuei elebidunen portzentajea handiagoa denean.

*Patxi Baztarrika Galparsoro
Hizkuntza Politikarako sailburuordea*

Ipuin Lehiaketaren sari banaketa, Sondikan



Urtarrilaren 20an Txorierriko VIII. Ipuin Lehiaketaren sari banaketa izan zen Sondikako Kultur Etxean. Lehiaketan 339 lagunek hartu dute parte eta irabazleak hurrengo hauek izan dira: Sondikako Amaia Kamiruaga A kategorian; Larrabetzuko Jon Villanueva B kategorian; Lezamako Maider Aurrekoetxea C kategorian; Derioko Alba Lozano D kategorian eta Bilboko Julene Sagarna E kategorian.

Halaber, 2. saria eman da kategorია guztietan, baita hainbat akzesit ere. Udal euskaltegiko irakasleek, Txepetxa AEK-ko euskaltegiko irakasleek, TOTOAN Txorierriko Euskara Elkarten Federazioak eta Lurdes Lasuen Mankomunitateko euskara teknikariak osatu dute epaimahaia.

Behi Bi"Sen taldeak Marilo beti lo ikuskizuna eskaini zuen sari banaketaren aurretik.

Idatziak egiten laguntzeko bilduma, Euskara Zerbitzuaren eskutik

Txorierriko Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak idatzi bilduma atera du, Bizkaiko beste Udal batzuekin batera. Idatzi bilduma bertoko elkarten artean banandu da eta helburu bikoitza du: alde batetik, euskara zabaltzen eta normalizatzen laguntzea eta, beste alde batetik, eskariak-eta egiten taldeei laguntza ematea. Horrela, bada, hainbat idatzi eredu batu dituzte bilduman: gutunak, gonbitak, etxe atariko auzokideen komunitateen idatziak eta erreklamazioak, besteak beste.

Ale batzuk Txorierriko udaletxeetan utzi dituzte eta nahi duenak bertan eskura dezake, ale horiek agortu arte.

Palestinari buruzko erakusketa eta hitzaldia, Lezaman

Lezamako Oxangoiti Kultur Elkarteak Palestinari buruzko erakusketa antolatu du otsailaren 6tik 12ra bitartean. Erakusketa elkartearen egoitzan egingo dute. Beste alde batetik, Igor Urrutikoetxeak hitzaldia emango du hilaren 10ean, 20:00etan, herriko Kultur Aretan. Urrutikoetxea brigadista joan zen Palestinara pasa den abuztuan, Euskal Herriko beste bost gazterekin.

Baserri baten utzarazteak polemika sortu du Zamudion



Horrela gelditu da Lazpita baserria behera bota ondoren

Ertzaintzak maizterrak etxetik irtenarazi eta Zamudioko Lazpita baserria behera bota zen pasa den urteko maiatzean. Bilbao Unibaso familia baserriaren errentara izan zen XIX. menditik hona, baina Udalak etxearen jabetza eskuratu zuen birpartzelatze-proiektu bat onartu ondoren. Horrela, bada, Ugaldeguren IIIko urbanizatzeko-lanak hasi eta baserriak hartzen zuen lurra industria-pabiloiak eraikitzeko erabiliko da.

Bilbao familiak **AIKOR!** aldizkariari esan dionaren arabera, etxea botako zutela jakinarazi zitzaientetik hona, Udalaren aurkako hainbat errekurso jarri zuten Administrazioarekiko Auzien Bilboko 2. Epaitegian, “gu ere kaltetuak garelako”. Hala ere, Udalak etxetik ateratzeko agindu eta 1. Epaitegiak bermatu zuen ordenua. “Agindua baserria bota baino aste bete lehenago jaso gendun, baina ez gendun ezer sinatu, jarritako errekursoen ganeko erabagirik ez egoalako oraindik”.

Kaltetuek Euskal Autonomia Erki-degoko Justizia Auzitegi Nagusira jo, eta horrek Lazpita baserria desalojatzeko autoa baliogabetu egin du. Auzotegi Nagusiak erabakia hartu zuen Epaitegiak

eskaera ez onartu edota 2. Epaitegia jakinararen gainean jarri beharko zuela aipatu du. “Udalak be ez eban errekursoen barri emon”, diote Bilbaotarrek.

Beste alde batetik, kalte-ordaina eta etxea itzultzeko eskatu du Bilbao familiak, baina Auzitegi Nagusiak ez ditu onartu. “Auzi-errekurtsoak aurrera eroango ditugu, izan be baten batek kontuak emon beharko ditu. Baserritarrak gara eta gure bizimodua kendu egin deuskue”.

AIKOR! aldizkariak Sorkunde Aiarza Zamudioko alkatearekin harremanetan jarri, eta Udalak tramite guztietan legea bete duela azaldu digu. Aiarzaren esanetan, birpartzelatzea onartu zenetik hainbat notifikazio bidali zitzaion Bilbao familiari, baina ez zituzten hartu. Ugaldeguren IIIko urbanizazioa aurrera eraman ahal izateko, etxera sartzeko eta etxea botatzeko baime-na eskatu zuten epaitegian eta txandaz 1. Epaitegia tokatu zitzaion Udalari. “Eta 1. Epaitegiak ala 2.ak erabakia hartu behar zuen, hori Administrazioaren kontua da. Udalak ezin du horretan ezer egin”. Halaber, Auzitegi Nazionalak autoa eragatik, baina ez mamiagatik, ezeztatu duela argi utzi nahi izan du.

Etxebizitzaren gaineko informazio bulegoa zabaldu dute Derion

Derioko Udalak bulegoa jarri du Aralar kalean, herrian egingo diren etxebizitzari buruzko informazioa emateko. Bulegoa astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara, dago zabalik eta etxebizitza tasatu, etxebizitza libre eta babes ofizialeko etxebizitzaren gaineko informazioa

eskura daiteke bertan. Horrezaz gainera, etxebizitza horiek eskuratzeko bete behar diren baldintzen berri ematen dute, besteak beste. Derion 100 etxebizitza tasatu zozketa-tuko dira aurten eta zozketa irailaren amaieran egitea espero dute. Informazio bulegoa ekainaren 30era arte izango da zabalik.



Larre-Gain sagardotegira bidaia

Txepetxa Txorierriko AEK-ko euskaltegiak Hernaniko Larre-Gain sagardotegira bidaia antolatu du otsailaren 11rako. Zerrenda zabalik dago euskaltegian eta nahi duenak izena eman dezake bertan edota 944543967 telefono zenbakira deituta. Autobusa 18:30etan irtengo da Txorierritik.

Tximintx, blog munduan murgilduta

Tximintx Derioko euskara elkarteak blog berria zabaldu du www.blogari.net/tximintx helbidean. Blog horrek Tximintxek antolatzen dituen ekintzak eta egitasmoak zabaltzea du helburu.

Zamudioko Agirre gela, zabalik

Zamudioko Udalak Agirre gela zabaldu du Agirre Lehendakaria plazan. Gela horretan hainbat udal ikastaro emango dira: yoga eta emeentzako masaje ikastaroa, besteak beste. Lekua atontzeko obrak egin behar izan dira. Horrela, bada, leiho bi atera dira fatxadan eta barruko hormak eta solairua konpondu egin dituzte. Halaber, komuna eta biltegi bat egin dira barrualdean.

Petritegira bidaia

Loiuko jai batzordeak Petritegi sagardotegira bidaia antolatu du martxoaren 11n. Izena otsailaren 13tik 26ra bitartean eman behar da udaletxean.

Lanak bukatu dira Derioko Gernikako Arbola kalean eta Aldekonen

Pasa den urtean, Derioko Udalak hainbat urbanizazio lan ekin zien herrian eta horietako batzuk bukatu dituzte. Horrela, bada, Aldekoneko semaforoak desagertu eta goiko aldean jarri den errotonda baten bidez erregulatuko da trafikoa hemendik aurrera. Goikoetxe kalea itxi egin da zirkulaziorako eta auzokideek erabil dezaten atondu da.

Gernikako Arbola kalean ere amaitu dira beharrak. Kale horren eta Mugialde etorbidearen artean beste errotonda bat jarri eta trafikoa arintzea lortu dute.

Beste alde batetik, Mugikortasun eta Irisgarristasun Planen barruan pausuak eman ditu Udalak, izan ere Sollube eta Aralar kaleak oinezkoentzat jarri dira. Horrezaz gainera, semaforoak ipini dituzte Larrabarriko irteeran.

Azkenik, San Miguel auzorako beste sarbide bat egingo dela aipatzekoa da. Unbe kalea auzo horretan sartzeko gaur egun dagoen bide bakarra da eta Udalak Almacene kaleraino luzatzeko asmoa du, sarbide edota irteera bi lortzeko. Proiektua Izartu programaren barruan dago.

GABONETAKO LOTERIA

69.950

Pedrea



Dirua Zamudioko
loteria-administrazioan
har dezakezue



Txepetxa euskaltegiak logo berria du

Txepetxa Txorierriko AEK-ko euskaltegiak 20 urte bete zituen iaz eta, urteurrena ospatzeko ekitaldien artean, logo lehiaketa antolatu zuen urrian. Lehiaketan 22 lagunek hartu zuten parte eta Larrabetzuko Aritz Albaizarrek aurkeztutako lana aukeratu dute. Logo hori euskaltegiaren irudi berria izango da hemendik aurrera. “Txoria mugapenetik kanpora irteten da eta ahoa zabalik izateak kalean, lasai eta pozik, euskaraz berba egiten dagoela ematen du. Eta hori da, hain zuzen ere, bultzatu nahi duguna: euskaraz era naturalean berba egitea, beldur eta lotsa barik”.

Zaila izan dute euskaltegiak erabakia hartzea, “oso lan politak aurkeztu dira eta oso heterogeneoak, gainera”. Logo berriarekin kamisetak aterarako dira eta euskaltegiaren inprimakietan ere erabiliko da.



201 lagun hurbildu ziren Testing programara Zamudio eta Loiuko jaietan

**Legez aurkako 56 substantzia analizatu eta
guztiek purutasun maila altua zuten**

Txorierriko Mankomunitateko Droga-menpekotasunen Prebentziorako Zerbitzuak Testing programa jarri zuen martxan Zamudioko Pazko jaietan eta Loiuko jaietan. Zerbitzuak hainbat helburu zituen: drogak hartzearen arriskuen berri

ematea, kontsumoaren gaineko gogoeta egitera kontsumitzaileak gonbidatzea eta kontsumitzaileei zein drogei buruzko datuak biltzea, besteak beste. Ai Laket elkarteak hartu zuen programaren ardurara.

Testing programa Euskal Herriko zenbait herritako jaietan abian jarri den zerbitzua da eta Zamudion 16 eta 33 urte bitarteko 113 gazte hurbildu ziren karparraino. Horietatik %82 gizona ziren eta %91k ez zuten zerbitzua ezagutzen. Orotara, 33 droga lagin analizatu ziren, hachisa eta kokaina gehienbat. Analisisien arabera, gai aktiboa topatu da hachis lagin guztietan eta aztertutako kokainak %50 baino purutasun altuagoa zuen. Andeatzailerik ez dute aurkitu.

Loiuko jaietan, berriz, jende gutxiagok erabili zuen zerbitzua; 16 eta 36 urte bitarteko 88 lagunek, hain zuzen ere. Horietatik %70 gizona ziren eta %83k ez zuten programaren berri. Loiun 23 droga lagin bildu zituzten eta Zamudion izandako parametro berberak errepikatu dira.

Karpa horietara jo zuten gazte gehienak informazio bila joan ziren eta substantziak analizatu zituztenak ohiko droga-kontsumitzaileak ziren. Dena dela, positiboki baloratu dute zerbitzua guztiek, “izan ere, programak informazio hutsa ematea du helburu; ez dugu txarlarik moralistikoki botatu nahi”, esan digu Mireia Saenz Man-komunitateko teknikariak.

Ai Laket elkarteak ere pozik azaldu da, “Loiun jende gutxiak parte hartu du, baina Zamudion arrakasta handia izan du zerbitzuak”. Horrezaz gainera, droga-kontsumitzaileak oso gazteak izan zirela aipatu dute, eta ez zutela diseinuko drogarik bildu. “Droga horiek beste giro batzuetan hartzen dira, diskoteketan esate baterako”. Saenzen esanetan, Zamudion eta Loiun izandako emaitzak Euskal Herriko edozein herritarako balio dezakete, “oso antzekoak dira-eta”.

Beste alde batetik, Karpa horietan kondoiak eta alkoholimetroak ere banandu ziren.

Andoni Egaña, bertsolaria

“Gaur egungo gizartea interpretatzen ez jakiteari beldur nion”

Abenduan, Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusiaren finala izan zen Barakaldoko BECen eta Andoni Egañak txapela 4. aldiz eskuratu zuen bertan. Hil honetan, Unai Iturriagarekin batera izan dugu Zamudion, bertsolaritzaren gaineko hitzaldia ematen. Luxu handia.

Testua: Itxaso Marina / Argazkia: Asier Ibaibarriaga. Iturria: XDZ

Lehenengo eta behin, zorionak eman behar dizkizugu. Zer da 4. txapel hori zuretzat?

Ba, 4. txapela. Aldez aurretik, ez nuen kalkulatu lor nezakeenik, ezta ekarri duen “mugida” ere. Inoiz baino arreta gehiago eskaini digute hedabideek eta txapelketa pasatu ondoren, jendeak bertsolaritza “orain” deskubritu duen sentsazioa dut.

Batzuentzat irabazlea izan zara hasiera-hasieratik. “Maestro” zarela diote...

Ez, hori ez da egia. Banekien txapelketa honetan zortzitik seigarrena gelditu nintekela lasai-lasai, baina oso maila antzekoa dugu eta beste edozein egunetan eurekin batera aritu, eta hirugarrena, edo zazpigarrena gelditu naiteke. Egun bateko suertefaktorea ere hor dago.

Oso bertsolari gazteekin ibili zara finalean, zer nabarmenduko zenuke eurengandik?

Beno, ez dira hain gazte. Bertsolari gazte asko baino, zahar falta dagoela uste dut.

“Txapelketa pasatu ondoren, jendeak bertsolaritza “orain” deskubritu duen sentsazioa dut”

Gaztetasun kontzeptu hori okerra da, txapelketei estatistikoki erreparatzen bazaie... Bakoitzak estilo ezberdina du, baina oso ona. Eta zortzi oso on elkartzaren direnean, edozein gauza gerta daiteke.

Maialen Lujanbio finalera ailegatu den emakume bakarra da... Emakume bat txapelduna inoiz?

Baietz uste dut, eta duela 4 urte Maialen ez zen txapelduna izan kasualitatez. Puntu gehiago eman zizkidaten niri, baina gure



arteko aldea oso txikia izan zen. Eta orduan txapelduna izan bazitekeen, aurretik ere bai. Amaia Agirrek ere oso txapelketa ona egin du, nahiz eta finalera ez ailegatu.

Eta zuk, nola ikusi duzu zeure burua txapelketan zehar?

Nahiko pozik irten naiz, izan ere, beldur nintzen hasieratik. Baina postuak baino, gaur egungo gizartea interpretatzen ez jakiteak beldurtzen ninduen. Duela 20 urteko gizartea eta oraingoa oso ezberdina dira... Baina badirudi gaitasun nahikoa dudala, aldatuz doan gizarte horri begi diferentziaz begiratzeko, garaian garaikoa.

BECa jendeaz gainezka izan zen final egunean. Sasoi onean dago bertsolaritza? Booma da?

Nire ustez, txapelketa nagusi guztiek hala-ko boon txiki bat ekartzen dute, baina guk handiago sumatzen dugu, beharbada. Hala ere, hor dago eta egin behar duguna

hurrengo hau da: lasai hartu eta txapelketa honen etekin humanoak gure proiektuetara nola bideratu aztertu.

Finala lehenengo aldiz izan da Bizkaian. Zer deritzozu Gipuzkoatik atera eta Bizkaira ekartzeari?

Ondo, baina nik ez dut horrela planteatzen; Donostiatik Barakaldora, baizik. Barakaldora joatea “puntazoa” izan da, eremu erdalduna delako, euskalduntzen ari delako eta euskalduntzeko ahaleginak egin dituenak euskaldun zaharrok baino meritu handiagoa duelako. Jende horri ahalegina nolabait eskertzeko garaia bazen.

Badakigu urrun dagoela, baina buruan duzu 5. txapela?

Ez, ezta gogoan ere ez! Hemendik 4 urtera ikusiko dugu zer gertatuko den. Behin baino gehiagotan esan dut kultura ez dela errekor-kontua. Eta bertsolaritza kultura da.

Gazteen txanda



Gazte Planak gazteen beharrianeiei erantzuna ematea du helburu. Loiuko Udalak plan hori burutu eta hainbat proiektu jarri du martxan. Ana Landa bertako kultura teknikariarekin izan gara solasean.

Mankomunitatea ere Gazte Plana jorrazten dabil, zergatik ez egin Txorierriko beste herriekin batera?

Loiuk ezaugarri bereziak ditu: garraioaren arazoak gurasoen menpe egotera edota autoa hartzera behartzen ditu gazteak, Txorierriko beste herrietara joateko. Biztanleria ere oso sakabanatuta dago eta arazo berarekin egiten dute topo auzo batetik bestera joateko. Horrezaz gainera, bertoko gazteek eurentzako lokala eskatzen dabilta aspalditik eta beste herrietan, berriz, badute. Gazte Plana Mankomunitatearekin batera eginez gero, eskaera hori ez zatekeen islatuko, beharbada. Eskola publikorik ere ez dago herrian eta gora-behera horiek guztiak kontuan hartuta, gure kabuz egitea erabaki genuen. Oso erabaki meditatua izan da.

Zenbat gaztek parte hartu dute proiektuan?

Deialdia 14 urtetik 30 urtera bitarteko gazte guztiei luzatu zaie eta 15 bat lagunek parte hartu dute proiektuan. Partehartzaileak 16 urtetik 20 urtera bitarteko gazteak izan dira eta horrek eragina eduki du emaitzetan, izan ere lehentasuna kultura zerbitzuei eman diete gehienbat, beste arlo batzuei eman beharrean, etxebizitzari esate baterako. Eta horretan hutsunea dagoela uste dugu.

Nola gauzatu duzue Gazte Plana?

Proiektuak hiru fase izan ditu. Lehengoan, ekipamenduen diagnostikoa egin eta hainbat arlo jorraztu genituen bertan: hezkuntza, enplegua, osasuna eta gizarte ekintza, aisialdia eta kultura eta etxebizitza. Udaleko teknikariek zein Mankomunitateko teknikariek eta Txorierriko ikastetxeetako ordezkariak parte hartu genuen fase horretan. Halaber, gazteen diagnostikoa egin genuen. Gazteei deialdi batzuk

zabaldutako genizkien, euren sexua, adina eta auzoa kontuan hartuta, baita Loiun jaio diren ala ez edota elkarteren batean parte hartzen duten kontuan hartuta ere. Erantzun zutenei elkarriketa egin zitzaientzen, euren beharriaz, kezkak eta abarrik jakiteko. Bigarren fasean, lan-mahiak osatu eta gazteekin batera aztertu genituen lehen aipaturako arloak. Hirugarren fasean, ondorioak atera eta eskaerei erantzuna ematen hasi gara.

Zer eskatzen dute Loiuko gazteek?

Garraioaren asuntza konpontzeko batez

“Biltzeko lokala izango dute Loiuko gazteek.

Horrezaz gainera, gazte txartela ateratzen dutenei deskontu bereziak egingo zaizkie kultur ekintzetan”

ere, baina Udalak nahiko zaila izango du hori betetzea. Beste alde batetik, udal informazioa ez zaiela heltzen azaldu digute; gurasoek hartu eta euren ez dutelako irakurtzen, beharbada. Horregatik, logo lehia-keta antolatutako dugu: irabazleak gazteei bidaltzen zaizkien inprimakietan erabiliko da, eurentzako informazioa dela oharterazteko. Beste alde batetik, biltzeko lokala eskatu digute: kultur etxea eraberritzen gabiltza eta bertan kokatuko da. Liburutegia eta KZgunea beste eraikin berri batera eramango dira eta ikasgela ere izango dute han. Horrezaz gainera, ikasteko eta Interneten nabigatzeko gela atondu da Larrondo auzoan. Eta gazte txartela ere jarri dugu martxan: eskuratzen dutenak abantailak izango dituzte kultur ekintzetan zein udal instalazioak erabiltzeko orduan.

Oso gazte gutxi parte hartu du proiektuan...

Lagun gehiagok parte hartzea gustatuko zidakeen, baina promesa egin eta ez bete-tzeaz aspertuta daude, beharbada. Horregatik, epe laburrean egin daitezkeen gauzekin hasi gara: ea aurrera eramaten direla ikusteak proposamen gehiago egite-ra animatzen dituen!

Beñat Lekue, ikaslea Finlandian

Hotzetik itzuli dan larrabetzuarra

Larrabetzuko Beñat Lekuek ez eban aukerea galdu. Derioko Nekazaritza Eskolan Basogintza eta Lorezaintzari buruzko kurtsoa bukatu eta Finlandian Basoko Makinariaren gaineko ikastaroa egiteko proposamena egin eutsien. Bertara beste hiru lagunekaz abiatu zan.

Kostatu jatzun erabagia hartutea?

Ez asko. Bakarrik joanez gero, pentsatuko neukean. Bertan ez dago halako kurtsoirik, baina Finlandian, barriz, espezialitate asko dagoz. Jendea ondo preparama ateraten da eskolatik.

Zenbat denbora emon dozu bertan?

Abuztutik abendura arte. Kurtsoa bukatu ondoren, praktikak Finlandian bertan edo etxean egiteko aukerea emon euskuen. Bertan egitea erabagi genduan, baina topatutea gaxa da, hemen makinaria horretako ale gitxi dagoelako. Eta horretan nabil. Ekainean Finlandiara bueltatu behar dot aste birako: mekanika ikasi eta praktikei buruzko txostena preparama behar dogu.

Zein ezberdintasun dago hezkuntza sistema biren artean?

Bertako irakasleek gai bat emon eta guk gure kabuz landu behar genduan. Azken hilabeteen basoan ibili ginan, makinekaz lanean. Lehenengo aldia izan da gure kurtsoa egin dana. Nazioarteko kurtsoa da, bost errusiarrek, hiru estoniarrek eta lau euskaldunok parte hartu dogu bertan.

Eta bizimoduari jagokonez?

Gutiz diferentea da. Orduategia, esate baterako. Gosaria goizeko 7etatik 8etara

hartzen genduan, bazkaria goizeko 11etan eta afaria arratsaldeko 4etan. Lehenengo aste bian egundoko gosea pasatu genduan! Baina eskolakoek kotxe bat itxi eta supermerkatu joaten ginan, janari bila... Egunean afari bi egiteko, behintzat! (kar, kar). Janaria be oso ezberdina da: zopa asko jaten dabe, moldeko ogia... barazki eta arrain gutxi. Eta hotz itzela dago. Abuztuan gaueko 12etan ilundu eta goizeko 4ak inguruan argituten zan; abenduan goizeko 12,30etan argitu eta eguerdiko 2:30etan ilundu egiten zan...

Zelan bertakotu zinien?

Hasieran txarto, finlandiarrak oso hotzak direlako. Baina, tira, eskolan bertan baego-en kiroldegi bat eta pixkanaka-pixkanaka beste ikasleengana hurbildutea lortu genduan. Kirola eurekaz batera egiten genduan.

Zertara egitea kostatu jatzu gehien?

Bertako aspertasunera. Rovaniemi hiritik –Laponiako hiriburua– kilometro bira dagoen herri batean bizi ginan eta herri hori ez dago ondo komunikatuta. Eta autobusa eta taxia garestiak dira, ganera. Eskerrak kotxea utzi euskuela! Inguruko herriak bisitatzeak aprobetxatuten genduan asteburuetan. Oso herri txikiak dira; etxe bi baino ez. Ez dabe, ez udaletxerik, ez tabernarik...

Eta zertara ez?

Saunara. Eskola ondoan dagoen bungalokomplexu batean bizi izan gara. Eta sauna egoten... Astean lautan zabal duten zan eta

“Jendeakaz harremanak izaten ikasteko balio izan jat esperientzia”

guk ez genduan ezta egun batean be huts egin!

Etxea faltan botako zenduan, hain urrun egonda... ala ez?

Hasieran ez, baina gero bai: familia, lagunak, etxea, mendia... Izan be, bertan ez dago mendirik, dana laua da.


Etxetik kanpo egon zaren lehenengo aldia izan da. Zertarako balio izan jatzu?

Jendeakaz harremanak izaten ikasteko, batez be.

Eta zer egiteko asmoa dozu etorkizunean?

Zati bik osatuten dabe egindako kurtsoa eta bigarrena egin nahi dogu, baina finlandiarrak baino ez dabe emoten. Datorren urtean ingelesez be prestatuko da, behar bada... Lan egingo dot, ziur asko. Basoko makinekaz aritzea gustatuko litxakit.

Testua eta argazkia: Itxaso Marina



Munduko lehenak eta azkenak

Ariketa berezia Behar Bidasoa GKEk proposatu ziena Txorierri Institutuko DBHko 2. mailako ikasleei. Ariketa horrek helburu bikoitza zuen: alde batetik, munduko ondasunen banaketeaz gaztetxoak oharteraztea eta, beste alde batetik, herri txiroei laguntzeko dauden bideak jakinaraztea. Sentimenduak izan zituzten lantresna.

Institutuko lau taldek hartu zuten parte ekintzan; talde bakoitza hogeita bi ikaslek osatu zuen. Behar Bidasoa Gobernuz Kanpoko Erakundearen lana azaldu ondoren, jolasteko ordua ailegatu zen.

Gaztetxoak munduko biztanleria bihurtu ziren. Gutunazal batetik papertxo bana hartu eta berriro jaio ziren: batzuk Lehen Munduan, beste batzuk Bigarren Munduan eta beste batzuk Hirugarren Munduan. Erakundeak benetako portzentaiak erabili zituen horretarako. “Hirugarren Munduan hamaika gazte jaio ziren, zazpi Bigarren Munduan eta lau Lehen Munduan. Biztanleria nola dagoen sakabatatuta konturatu ziren”. Eta beste hainbeste egin zuten munduko ondasunen banaketarekin. Polboroiak, turroiak, bonboiak eta edaria ondasuntzat erabili eta hiru munduen artean banandu zituzten: hemezortzi jaki eta hemezortzi edalontzi Lehen Mundukoentzat, jaki bi eta edalontzi bi Bigarren Mundukoentzat eta jaki bi eta edalontzi bi Hirugarren Mundukoentzat. “Guztiek lan berbera egin zutela esan genien, eta mahai gainean zegoena ahalegin horren ordaina zela”.

“Fikziozko mundu behartsuetan jaio zirenek ez zuten zalantzarik izan: Lehen Mundura joango ziren”



Testua: Itxaso Marina
Argazkiak: Behar Bidasoa



Gozokiak eta edaria hartzearekin batera sentimenduak agertu ziren. “Banaketa egin ondoren, Bigarren Mundukoak zirela komentatu ziguten, izan ere haiek baino jende aberatsagoa badago bertan. Baina banaketaren ostean iritziz aldatu ziren: Lehen Munduan bizi izateaz jabetu ziren”. Eta Hirugarren Munduan liderra sortu zen. Liderrak jakiak banatu eta zatirik handiena gorde zuen berarentzat; batzuek jan barik gelditu ziren. “Errealitatean gertatzen den bezala, besterik ez”. Fikziozko mundu behartsuetan jaio zirenek ez zuten zalantzarik izan: Lehen Mundura joango ziren, “eta horixe da inmigrazioa”.

Inmigrazioaren benetako arazoa pobrezia da eta horretaz ohartzeko adibide garbia jarri zuten Behar Bidasoa GKEkoek: atzerriko futbol jokalaria. Horiek ere etorkinak dira, baina dirutza dute eta ondo integratuta daude gizartean. “Bertora datozen etorkinek ez dutela nahita egiten ulertzea ezinbestekoa da. Euren herrietan pozpozik biziko ziren, baina gabeziak alde egitera behartzen ditu, batzuetan bizitza arriskuan jarri arren”. Jendea herria uztera behartzen duten faktoreen gainean luze mintzatu ziren, “ez zela bidezkoa haiek; hala ere, legezkoa zela guk”.

Eta beste ideia bat argi izan zuten gazteek: berriro jaio izango balira, Lehen Munduan jaiotzea gustatuko litzaieke. Eta munduko injustiziak konpondu beharko lirakeela, Hirugarren Munduan jaiotzea gerta liteke-eta.

“Gobernu solidario bat sortu beharko zen”

Behar Bidasoak egin duen ariketa baliagarria izan da zuentzat?

Bai, besteak nola bizi diren ohartzeko balio izan digulako. Gauza gutxi dute; guk, berriz, gehiegi. Eta baloratu egin behar dugu daukaguna. Lehen Munduan populazioaren %20a dago, eta hala ere munduko ondasunen %80a du.

Ariketa benetako datuak erabilia egin genuen: Lehen Mundukoek janari asko zuten, polboroiak, gailetak, 17 edalontzi...; Bigarren Mundukoek justu-justu eta Hirugarren Mundukoek edalontzi bi eta gaileta bi. Horiek 11 pertsona artean banandu behar ziren...

Eta zein sentimendu izan zenuten egoera horren aurrean?

Gosea eta inbidia. Euren mundura lapurtzera joango ginela esan genien brometan Lehen Mundukoei.

Zer ikasi duzue?

Argazki batzuk ikusi genituen: jendea txabola oso txikietan bizi da eta batzuek kalean egiten dute lo. Oso goiz altxatu behar dira lanera joateko eta janaria banatu behar dute guztientzat izateko... Argazki batean agertu zen mutil bat. Mutil horrek fruta lapurtu eta tiro bat bota zioten... Hirugarren Munduko ahulenak emakumezkoak eta umeak dira.

Zuek 13 urte dituzue, Hirugarren Munduan ere 13 urteko gaztetxo asko dago...

Neska asko prostituzio munduan sartu



dira eta gogorra da oheratu behar izatea ezertaz ezagutzen ez duzun gizon batekin... Gazte asko drogetan ibiltzen dira eta HIESa ere badago. Gosea kentzeko itsasgarria hartzen dute... Askok lan egin behar dute eta oso txarto dago hori, izan ere ikasi ahal izango balute lan onen bat topatuko lukete.

Zer egin beharko zen egoera aldatzeko, zuen ustez?

Guztiok maila berean egon beharko genuke. Familia bakoitzak diru apur bat

eman lezake hilero, eurei laguntzeko... Baina dirulaguntza hori bidean lapurtzeko arriskua dago eta arropa eta medikamentuekin gauza bera gerta daiteke. Bertokoak hango ekonomia altxatzera joan eta jatekoak nola lortu irakatsi beharko genioke. Bigarren eta Hirugarren Munduko produktuak ere merkatura zabaldu beharko lirateke... Gobernu solidario bat sortu beharko litzatke, herrialde guztiek lagundu beharko lukete apur bat.

Iñaki Gaminde, ikerlaria

“Euskerarik indartsuena euskalkietatik paraje dagoana da”

Euskaltzain urgazlea,
Mendebalde Kultura
Alkarteko kidea eta
Irakasle Eskolako irā-
kaslea. Iñaki Gamindek
urteak eta urteak daroaz herriko
euskerea jasotzen eta aztertzen.

Errekaldekoak 51 liburu plazaratu
ditu; hareetariko hiru, Txorierriren
ganekoak: ‘Zamudio berbarik berba’
(2000), ‘Lezama gure herria’ (2005)
eta ‘Derioztarren euskara’ (2005).
Eta euskaldunon hizkuntzaren
ganean egin dogu, hain zuzen be,
barriketaldi bat beragaz.

Testua eta argazkiak: Itxaso Marina

Euskaldun barria zara. Euskera batua ikasi eta, halan be, bizkaieraz bizi zara orain...

Garai hartan irakasten zana ikasi neban: ez dakit euskera batua zan, ezta euskera bazan be... Eta euskaldunen artean bizi izateko, euskaldunen moduan berba egiten hasi nintzan. Baina ez zan bizkaieragaitik beren beregi; beste leku batean bizi izan ezkerro, beste era batera egingo neukean. Garai hartan euskerea ikasten hasi ginanok hurrengo hau genduan argi: hizkuntza nahi genduala euskaldunen artean nabarmendu barik bizi ahal izateko.

Edozein egoeratan euskeraz egiteko gai gara euskaldunok?

Geure burua engainetan dogu sarritan, izan be, hizkuntza ez dogu bere osotasunean ezagutzen. Egoera batzutan ondo defenditzen gara euskeraz, baina beste batzutan ez; ez dogulako instrumentu linguistiko nahikorik. Hitzaldi bat euskeraz emon daikegu, baina seme-alabak kontsolatu behar doguzenean edota lagunakaz futbolaren ganean hasten garenean, ez dakigu zein esapide erabili... Eta tresna horreek herriak ditu: herriko jendeak ez dau goi mailako gauzarik jakingo, beharbada, baina hileta batean edota igogailuan zer esan behar dan badaki.

Eta horregaitik tokian tokiko euskerea batuten hasi, beharbada?

Gauza batek bestea dakar. Euskera ikasten nenbilenean, hizkuntza ulertzea neban lehenengo helburua; berba egin ahal izatea, bigarrena, eta euskaldunen artean normal-normal egotea, azkena... Eta beste mundu kultural eta erreferentzial bat badagoela konturatu nintzan, guri ukatu egin jakuna... Ondarrun euskaldunak deskubritu nituanean, zurtz eginda lotu nintzan!

Euskal Herri osotik ibili ondoren, zer nabarmenduko zeunke euskaldunongan-



Jenteari euskereaz eta kulturaz gozatzen itxi beharko jako, Gaminderen ustez

dik?

Euskaldun normal batek, euskeraz bizi danak, euskera perfektua egiten dauela, edonongoa izanda be. Hizkuntza ezagutzen dau, naturaltasunez erabiltzen dau eta txartotasun kontzepturik ez dauka, ganera. Ondo txertatuta dago ingurunean, eta hori hizkuntzan, kulturaren eta erabileraren igarri egiten da... Izan be, hizkuntza ez da berba egitea bakarrik, mundu eta kultura oso baten ardatza baino.

Eta zer da euskaldunok bereiztu eta

*“Euskaldunek euskerea
perfektua egiten dabe,
edonongoa izanda be.
Txartotasun kontzepturik
ez daukate”*

batzen gaituana?

Segun eta zeri aditu gura jakon. Gatican eta Larrabetzun “joan” aditza zelan esaten dan jarriko dot adibide moduan: bereizten dituanari erreparatuz gero, %100ean dira ezberdinak, baina inportantea danari, hau da, morfemeai aditzen bajakie, %30ean. Lehendabiziko kolpean ez genduan ulertuko, beharbada, baina tokian tokiko soinua, berbak eta abar geureganatzean dago koska... Borondateagaz leku guztietan alkar ulertu egiten da.

Euskereak lortu dau hiritartzea?

Horretan dabil, baina arazoa da oreka behar dogula. Eredu urbanotzat har daitekezen uri txikiak badoguz: Igorre, Bermeo, Ondarru, Lekeitio... Problema da zelan orekatzen dan betiko euskaldunen euskerea eta gaur egungo euskerea. Bertan kontzeptu barri bat azaldzen jaku: hiltun osoa izatea. Gaurko gazte asko eta asko ez dira hiltun osoak; hau da, funtzio batzuetan

"Ez dogu instrumentu nahikorik,
euskereaz egiteko arlo guztietan"



euskeraz egiteko gai dira, baina beste batzutan ez. Eta zaharrai gauza bera gertatzen jake... Baina azken honeek ez dabe behar, eta gazteek, barriz, behar dabe zaharrek daukien hori. Horretan izango zan ezberdintasuna.

Bizkaiera batua ala tokian tokiko euskalkiak...

Eztabaida handia dago horren inguruan. Gauza bat da etxerako idaztea eta beste bat kalerako. Nire ustetan, idatzi bat kaleratu behar danean, jendeagandik ahalik eta parajeen idatzi behar da. Izan be, euskararik indartsuena euskalkietatik paraje dagoena dala uste dot, horregaz identifikatuta sentitzen garalako. Hizkuntza horregaz lotura afektiboak izan behar doguz eta euskera dotoreak ez deusku horrelakorik emoten.

Txorierrin egindako lanaren ganean ari-tuko gara orain: Zamudio, Lezama eta Derioko euskerea aztertu dozu hiru liburutan...

Gauza kuriosoa gertatu jatan: bertoko eus-

kera alkarteek deitu egin ninduen, lan hori egiteko, euren erreferentziak galduz doazela ikusi dabelako. Eta euskera aztertzen ibili nazen beste lekuetatik, barriz, ez ninduen deitu, nahiz eta han be gauza bera gertatu. Euren hizkuntza eta euren mundu ikuskeraren zati bat bildu dira hiru liburu horreetan, baina horrek ez dau dana batu dogunik esan gura, ezta euskerea salbu dagoanik be. Eta zer gertatuko da orain? Lan hori hasikerea izan da eta bertokoek erabagi behar dozue zer dan museorako eta zer erabilteko. Eta erabilteko danari bidea emon behar jako... Hori bigarren pausua izango zan. Adibidez, neska bat edadeko euskaldunai alkarrizketak egiten dabil Billabonan, eta Euskal Herri osoan halako proiekturen bat egitea polita izango zan, jendearen parte-hartzea lortzen dala-ko. Jentea bere euskerearen ganean eztabaidan paretea lortzen bada, aurrerapauso ikaragarria da hori.

Berezitasunik topatu dozu bertan?

Txorierrin hiru euskera mota dagoz ondo

“Jentea bere euskerearen ganean eztabaidan paretea lortzea aurrerapauso ikaragarria da”

definituta: mota bat, Erandiotik Sondikara; beste bat, Sondikatik Lezamara, eta beste bat, Larrabetzun. Horrez gainera, herri berean berba ezberdinak topa geinkez, gagozan auzoaren arabera. Nire ustetan, azentuen bilakaera da interesgarriena: Erandio, Sondika eta Loiuko moldea Gatikako euskeratik aldendu da; Derio, Zamudio eta Lezamakoak Arratiako, Gatikako eta Bilboko sistema lotzen ditu eta horrez gainera, adinaren arabera molde ezberdinak dagoz bertan. Larrabetzuko sistema Durango aldean egiten dana da. Lexikoari jagokanez, bilakaera ere nabaritzen da.

Herriko pasadizoak eta istorioak be batu-ko zenduzan...

Eta oso jente xelebrea ezagutu be: Erandioko “Txori” bertsolaria, Loiuko Ramiro Gaztañaga... Pasadizoren bat aipatzekotan, bendejan ibiltzen ziran andrazkoen beharra aitaturko neuke: plazara joan eta Bilboko handi-mandien arropa bildu, garbitzeko. Arropa bertan garbitu eta Bilbora barriro eroan... Hori bai dala bizitzaren pasadizoa, nire ustez. Ahal danean, andrazko informanteak nahiago ditut, etxean danetarik egin behar izan dabenez, gizartea hobeto ezagutzen dabelako...

Istoria bitxiren bat?

Berangoko gudari batek gerra amaitutzat emon eta etxera bueltatzeko erabagi eban. Herrira ailegau eta faxistak topa zituan bertan: etxeko ganbaran zazpi urte emon

“Istoria bitxi asko doguz herrian, eta geure kultura balioetsiko bagendu, filmak egingo geunkez istorio horreen ganean”

zituaz ezkutautu. Halako istorio bitxi asko doguz herrian, eta geure kultura balioetsiko bagendu eta gure artistak beste era batekoak izango balira, istorio horreei buruzko filmak egingo geunke... Gainerako guztiek egin eta guri saltzen deuskuen moduan.

Eta Txorierrin?

Pasadizo pila bat dago: Geldoetakako kamino nola egin zan, izan be, Indalecio Prieto bertako baserri baten egon zan ezkutautu... Eta orain dala gitxi arte bidelapurrak izan dira Derion...

Sorginen gaineko hainbat kontu be bada-goz: Zamudioko bat azaldu zan herrian, sorginek eroanda, menditik hara eta hona ibilia zala esanez... Baina, pentsau egizue, zenbat parranda, zenbat mozkorraldi... Azkenean, zer egiten dogu? Hori guztia kultura ezagun bategaz lotu. Eta bertakoek esandakoaren arabera, egon badago oraindik sorgin bat Derion...

Gaia aldatuko dogu: euskaltzain urgazlea izateaz gainera, AEK-ko irakaslea izan zinan, Euskaltzaindiak erotu egingo gaitu hainbeste araurekin?

Euskaltzaindiak bere papera bete behar dauela uste dot, eta paper hori garrantzitsua dala, ganera. Baina hizkuntza ez da Euskaltzaindiarena. Hizkuntza geurea da eta Euskaltzaindiak gure atzetik etorri behar dau; ez gure aurretik, orain dabilen moduan. Akademiak arauak emoten ditu, beharrezkoa dalako, baina daukagun obsesioa burutik kendu behar dogu. Hau da, gidoia non jarri behar dan garrantzitsua izango da irakasleentzat edota idazleentzat, baina hiztun arruntok bost.

Euskaltzaindia ez da erakunde hutsezina, eta gauzak ondo egiten ditu gehienetan; beste batzutan, ez. Euskaltzaindiak bere papera bete behar dau eta euskaldunok geurea: euskaraz berba egin eta kito.

“Euskaltzaindiak bere papera bete behar dau, eta euskaldunok, geurea: euskaraz berba egin eta kito”

Txillardegik esan eban moduan, hau ez da Arau Herria, hau Euskal Herria da.

Euskera artifiziala sortzen hasi da, behar-bada...

Baina Euskaltzaindia ez dabil euskerea sortzen, eta hori argitu behar dan gauza da. Adibidez, psikologoek eta abokatuak euren euskerea sortzen dabe eta Euskaltzaindiak bedeinkatu egiten dau, gehienez jota. Hori artifiziala da? Jakina, eta espai-

nolez be bai, eta txinoz be ziur artifiziala izango dana. Hutsuneak non dagozan aztertu behar ditu Euskaltzaindiak, horretan lan egin, erabagiak hartu zentzunez, eta adostasuna lortu jenteagaz. Eta horrela gero eta gehiago egiten dauela pentsetan dot. Izan be, jenteari itxi behar jako zoriontsu izaten, eta hizkuntzaz gozatzen; bestela, hainbeste traba jarrita, gauza errezago batera joko dogu. Beste alde batetik, guk ere geure lehentasunak zehaztu behar doguz: zer da inportanteagoa? Gure hizkuntzaz eta kulturaz gozatzea ala gidoi baten pentzura bizi izatea?

Izan be, euskerea martirio bihur daiteke batzutan...

Baina Axularrek esan eban legez, hori ez da euskeraren arazoa, euskaldunona baino.



Ikerlariak 51 liburu kaleratu ditu, “Sorginakaz jantzan” azkenetariko bat da



Antzinako bizimodua, Derion

Derioko Goiko kaleko lokal batean sartu gara urtarilaren hasieran. Beste garai batera egin dugu salto. Bost edo sei hamarkada egin ditugu atzera. Sardina zaharren usain sakonak ere hori adierazi gura du. Poteatzeko ipurdi handiko basuen ondoren 1940ko "La Gaceta del Norte" dago.

Denda eta taberna daude barruan. Itxura eta produktuak ez dira gaur egunekoak, ez horixe. Eskegita dagoen irratia, olio neurtzeko tramankulua, pisatzeko romanak... ere ez. Gehiena sakutotan, hortik paperezko poltsetara sartzeko, plastikorik ez. Orain ekologikoa esango genuke. Hainbat detailetan begirada lasai pausatuta ondoren, irteteko ordua heldu da.

Irteterakoan Txoriberri taldeko aurtengo erakusketa izan dela konturatu gara: "Txozna, antzinako denda-taberna".

Testua eta argazkiak: Bestorrene



“Taldekideek alde egitea da gogorrena”

Zamudioko Aitor Aurrekoetxeak 35 egun eman zituen Zugaztietako La Buena eta Dolores kobazuloetan, beste 19 lagunekin batera. Horiek Basetxe ETBko saioaren azken lehiakideak izan ziren. Aitorrek 4. postua eskuratu zuen bertan.



Testua eta argazkiak: Itxaso Marina

Zelan ailegatu zitzazizun Basetxean parte hartzeko aukera?

Lagunek-eta animatu ninduten eta nik ere aurreko edizioak ikusita nituen. Telebistan kasting-a egiteko deialdia egin eta “zergatik ez” pentsatu nuen. Esperientzia berri bat biziko nuen.

Saio batzuk baserri batean izan dira, beste bat taberna batean... eta azken hau kobazuloetan. Gogorrena, beharbada?

Bai, hotza eta gosea pasatu nituen... Baina hotza, batez ere. Saioa abuztu-irailean grabatu genuen, baina kobazuloetan beti daude hotza eta hezetasuna. Gainera, 35 egun horiek arropa aldatu eta dutxatu barik eman genituen.

Nola ikusi duzu zeure burua saioan?

Lehiakide batek alde egitea erabaki eta ni bere ordeztatu nintzen. Beste taldekideek elkar ezagutzen zuten eta apur bat urduri ibili nintzen hasieran. Baina egunak joan ahala, gure arteko harremana estutuz joan zen. Ondo hartu ninduen taldeak, pozik nago.

Telebistan ikusi ondoren, damutzen zara zerbait egin izana?

“Dena ematen duzu, saioan gelditzearren. Ez dakit zergatik, baina horrela da”

Ez, egin dudana hor dago eta nik badakit zer egin dudana eta zer ez. Baina, noski, hiru egunean grabatu zena ordu eta erdiko saio batean eman zuten telebistan. Nahi izan dituzten irudiak erabili dira eta ez dakit ondo islatu den benetan bizi genuena. Dena dela, halako saio batean parte hartzen duzunean, badakizu batzuentzat “ona” eta beste batzuentzat “ez hain ona” izango zarela. Nik atxikimendu-mezu asko jaso ditut.

Zein izan zen probarik gogorrena zuretzat?

Aldapa baten gora bizikletaz igo behar izatea... Beno, oso proba gogorrak egin behar izan ditugu, baina zeure burua limitean jarri eta dena ematen duzu, saioan gelditzearren. Odoletan sartuta zeuden bildots

batzuen begiak atera behar izan nituen ahoa erabilia eta hori gogorrena izan zela diote, baina tira...

Eta emozionalki?

Taldekideek alde egiten zutenean, elkarrekin 24 ordu ematen genituelako eta oso harreman estua genuelako.

Zeintzuk dira saioko alderik onenak eta txarrenak?

Onak asko dira, baita txarrak ere. Baina ni baikorra naiz eta onekin gelditzen naiz. Kanpoan ditugun gauzak baloratzen ikasi dut, izan ere zaldi batzuei ogia kendu behar izan genien eta pentsatzen duzu: “Jo, ogi gogorra jaten hemen eta etxean ez ditugu indabak jan nahi”.

Merezi du hori guztia egitea?

Beno, kanpotik ikusita, “beno, baina zertan dabilta horiek” pentsa daiteke, hala ere saio barruan zaudenean dena ematen duzu. Ez dakit zergatik, baina horrela da.

Eta zer ikasi duzu?

Gose eta hotz zarenean, burua joaten zaizu, baina non nagoen ikasi dut. Eta bizitzan ez dagoela premiakoen ezer: zigarro barik eta jan barik pasa daiteke, ur gutxirekin...

Politeknikak, Urrezko Qa

Barriro be, Txorierrri Politeknika Ikastegiak aurrerapausu garrantzitsua emon dau Kalidadezko Gestinoaren arloan. Oraingoan, Eusko Jaurlaritzak Kudeaketaren Kalitateari emoten deutson saririk gorena lortu dau, Urrezko Qa, Bizkaian sari hau erdiesten dauan Lanbide Heziketako lehen ikastetxea dalarik. Bere 25. urteurrena ospatzen dabilen ikastetxeak orain dala hamar urte ekin eutson kalidadezko gestinoaren bideari ikastetxeko arazoak eta lan egiteko prozedurak hobatzeko asmoz, bisino estrategiko ezin hobia erakutsiz. Juan Angel San Vicente ikastetxeko zuzendarigaz egon gara berbetan.

Testua: Fernando Larrondo / Argazkiak: Txorierrri Politeknika

Hasteko zorionak, egun guztietan ez baita Urrezko Q bat irabazten. Sari hau harro egoteko modukoa da, zalantza barik, baina hona ailegatzeko egin behar izan dozuena ez zara edozelangoa izango, ezta?

Bai. Atzerantza begiratzean, eta orain dala hamar urte hartu genduan erabakia – kalidadearen gestinoaren bidetik sartu izana – aztertzean, ezin ezetz esan asmatu genduala. Erabaki hartan MCCren itzala nabaria

izan zara, kontuan hartuta MCC gure bazkide eta, era berean, babesleerikoa bat zala, eta MCCk aspaldian zehaztuta eukala EFQM parametroen ildotik joan enprestatoko gestino eredua. Kudeaketa patroihonari jarraitu izanak lan eskerga ekarri deusku, bai, baina ikastetxean agertzen jakuzan hainbat buruhauste eta arazoren-tzako konponbidea be bai.

EFQM, Urrezko Q, Bikaintasuna, Kalidadezko gestinoa... azken urteetan ohitu

egin gara holango berbekaz. Euskal Herriko enpresa eta ikastetxe piloa dago hobakuntza prozesuetan murgilduta. Zein da arrazoa? Eta, zuen kasuan, zerk bultzatu zintuen?

Beno, enpresa handien eragina ukaezina da, lehen aitaturako Mondragón Corporación Corporativarena esaterako. Gaur eguneko merkatuan lehiakor izateko eta enpresen arteko sare horretako partaide izateko ezinbestekoa dozu enpresa, ikastetxearen barruan gauzak egiteko, irakasteko, kontratatze edota produzitzeko dagoan modua estandarizatzea, mekanizatzea, ez daitela pertsona baten pentzuan egon; onartuta, idatzita eta ikasita egon behar da. Gure kasuan, ikasleei prestakuntza egoki bat emotea izan dogu xede nagusi betidanik, inguruko enpresekaz alkarlanean, eta hau aurrera eramateko, etenbako hobakuntzaren bidea aukeratu genduan. Honetarako, lan talde ezbardinak osatu eta hobatzeko adierazle batzuk zehaztu genduzan, urtez urte neurtuz eta egon eitekezan hutsak zuzenduz. Galderari erantzunez, gure kasuan Eusko Jaurlaritzak Lanbide Heziketaren alde egin eta egiten dauan posturak berebiziko garrantzia euki dau. Eusko Jaurlaritzak ez ezik, enpresa bazkideek be etenbako laguntza emon deuskue - ekipoetan egin beharreko inbertsioak hor dagoz -, eta azkenik, eskualdeko Udalek emoniko laguntza, eraikin barritik hasita egunez eguneko gorabeherak artez-



Juan Jose Ibarretxe lehendakariak emonda, jaso eban saria Juan Angel San Vicentek

“Ikasleei prestakuntza egoki bat emotea dogu xede nagusi, eta etenbako hobakuntzaren bidea aukeratu genduan horretarako”

tuteko eskeini daben alkarlanera.

Politeknika sozietate kooperatibo bat iza-teak izango eban zerikusiren bat azken urteetako ibilbide arrakastatsuan, ezta?

Beno, baietz esango nuke. Gure zentruan, enpresek, eskualdeko udalek, ikastetxeko beharginek eta ikasleen familiek parte hartzen dabe. Arestian aitatu legez, inguruko enpresekaz harreman estu-estua euki dogu beti, emoitza on-onak izan dituan harremana, egia esan. Geuretzako, geure ikasleentzako lan merkatuan hasteko aukera ezin hobeia izan da, eta eurentzat harrobi bat izan gara. Beharginek ikastetxearen proiektuan euki daben inplikazioa be azpimaragarria izan da, lanordu asko eta asko emon behar izan dabezalako gagozan egoera honetara ailegatu ahal izateko. Ikasleen jarrera be positiboa izan da, hainbat proiektutan eskuhartu dabelarik, jakin badakie euren geroko lan-ibilbidea ikastetxean egindako lanagaz eta izandako inplikazioaz hasten dala. Esaterako, beti euki dogu bertoko ikasleek kudeatutako barne-enpresa bat, gaur egun Langiro izena dauana, lehen Kopaltxo lez ezaguna.

Bizkaiko Lanbide Heziketako ikastetxeen artean erreferentzia bat zarie, esan dogun moduan. Urrezko Q hor dozue, eta orain? Zeintzuk dira datozen urteetarako zain dagozan erronkak?

Lanak, eta hor, LHko abangoardian egoteak, ez du amaierarik. Lea-Artibaiko LH ikastetxea eta geu izango gara ekipamenduetan eginiko inbertsioetan ahalegin gehien gauzatu doguzanak. Hemetik aurrera, lanbide heziketaren esparruan diharduen eragile ezbardinekaz harreman sare handitzen ahaleginduko gara; esaterako, BIEgaz –Bizkaiko Ikastolen Elkartea –hitzarmen bat sinatzekotan gabilz, euren oinarritzko ikasketeak euskeraz burutu ostean, lanbide heziketaren aukera hartzen daben ikasleentzat prestakuntza euskeraz



Ikastetxeko ikasleak eta irakasleak izan ziran sari emotean

“Euskaraz jasotako prestaketea eten ez daiten alkarlanerako akordio baten bila gabilz, gaur egun Lanbide Heziketan euskaraz egin daitekezan ikasketeak oso urriak dira eta”

jarraitu ahal izan dagien. Hau da, euskaraz jasotako prestaketea eten ez daiten alkarlanerako akordio baten bila gabilz, gaur egun Lanbide Heziketan euskaraz egin daitekezan ikasketeak oso urriak dira eta. Lanbide Heziketa euskaraz egin ahal izatea da erronka. Irakaslego elebiduna dogu, jada hainbat arlo euskaraz jarraitu daite-

kez, eta behar doguna, zera da: ikasleria. Gure eskaintza akademikoak, gaur, eredu hirueledun bat dau oinarrian, euskaraz, ingelesez eta gazteleraz, gehienak gaztelaniazko aukerea hartzen badabe ere. Itxaron dagigun joera honek buelta emotea hurrengo urteetan. Gu prest gagoz erronka horre-ri aurre egiteko.

Euskal Herrian Lanbide Heziketak etorkizun oparoa ei dauka.

Halan emoten dau, baina ezin gara lotan gelditu. Amaitzeko, zera gogoratu gura dot: Abenduaren 22an Urrezko Qa jasota, oraindino beste ekitaldi falta da, ikastetxean bertan egingo dana. Zezeilaren 7an, goizeko 11-12etan, ospatuko dan ekitaldian Eusko Jaurlaritzako ordezkariak Urrezko Qa jaso izanaren ziurtagiria eta insignia banatuko deutseez Ikastetxeko langileei. Ospakizun honetara enpresa bazkideak eskualdeko herrietako alkateak eta ikasle eta familiak inbitau doguz, zelan ez.

Bizkaiko erakusleihorik

Jaso duzuna oso sari inportantea da Bizkaia mailan. Gainera, 500 lagun baino gehiagok hartu dute parte lehiaketan, pozik egon behar...

Hasieran ez nuen sinesten, baina eduki duen lanagatik merezitako saria dela uste dut. Ikusgarria da gainera. Jakin banekien sari bat jasoko nuela, baina hainbat kategoria dago lehiaketaren barruan eta horietako bat izango zela pentsatzen nuen, ez sari nagusia.

Hain sari inportantea denez, hainbat komunikabidetan atera zara; zelan darazazu fama?

Oso ondo ez. Horretarako nahiko lotsatia naiz eta Arriagan bertan eszenatokira ateratzea itzela izan zen niretzat. Beno, neure buruari esaten nion “merezi duzu, merezi duzu”. Dendarako, edo enpresaren ikuspuntutik, inportantea da, zure lana baloratzen delako.

Pizgarria da?

Pizgarria baino, saria da. Erakusleihoa beti landu dut eta jarraituko dut lantzen, bezeroei begira oso inportantea delako. Jarraituko dut lanean, sariak egon ala ez.

Erakusleihorekin gainean arituko gara orain, zer adierazi nahi izan duzu zure lanaren bitartez?


Ugaritasunaren adar bat egin dut. Zoriona adierazi nahi izan dut, ugaritasuna opatu jendeari. Eta horretarako enkartado-teknika erabili dut: burdinazko egitura batean goroldi hosto sikuak jarri ditut, haritz hostoak, koko izpiak... Loreginok tamaina txikian egin dezakegun lana tamaina handian egin dut.

Lan handia ekarriko du horrek...

Bai, ordu batzuk eman genituen burdinazko egitura egiten eta ordu gehiago enkartadoa egiten. Erakusleihoa egin aurretik,

“Gabonetan ez ezik urte osoan zehar ere erakusleihok lantzera animatu nahi ditut, inbertsioa da-eta”

Testua eta argazkiak: Itxaso Marina



Urtarrilaren 9an Bizkaiko XXII. Erakusleihoko Lehiaketaren sariak banandu ziren Arriaga antzokian, Bizkaiko Merkataritza Ganberak antolatuta. Lehiaketan 500 dendarik baino gehiagok hartu zuten parte eta Derioko Liliak loradendak jaso zuen lehenengo saria. Amaia Rementeriarik zorionak eman dizkiogu.

diseinu txiki bat egiten dut paperean. Eta erabiltzen ditudan materialekin *feelinga* izan behar dut, material horiek landu behar ditudalako.

Artea da erakusleihogintza?

Bai, Estatu mailan aintzat hartua egon ez arren. European arte barruan ikasten den zerbait da. Izan ere, zer da artea? Sentitzen duzuna gauza materialen bidez islatzea.

Dendaz denda zabiltzanean, besteen erakusleihoei erreparatuko diezu...

Bai, batzuk onak dira; beste batzuk arruntagoak... Baina maila ona dagoela uste dut. Arriagan saritu zituzten erakusleihok batzuk oso onak izan ziren... Gabonetan, behintzat, jendeak erakusleihok berezia jartzeko gogo duela igartzen da, baita lehiaketan parte hartzeko gogo ere bai.

Inportantea da bezeroei begira...

ederrena



Ane ileapaindegia Derio Saria eskuratu du

Bizkaiko Erakuslehio Lehiaketan hainbat kategoriatan dago eta udalerrira ere ematen dira sariak. Ane ileapaindegia Derio Saria jaso du bigarren aldiz. “Oso pozik nago, egindako lana aintzat hartu dutelako. Ilusioz hartu dut; ez nuen espero. Halako sariak motibatu egiten

zaituzte”. Anek udazken eta negu-sentsazioa adierazi nahi izan du erakuslehoaren bidez. Horrezaz gainera, brillantina toke bat erabili du Gabonetako magia islatzeko. Eta bai, ile-lehorgailuak elementu magikoak bihurtzea lortu du.

Ikerketen arabera, erakusleioa negozioaren %70a da. Batzuek ez diote erreparatu-ko eta dendara sartu eta berdin-berdin erosiko dute, baina beste batzuk erakarri egingo ditu nahiz eta erakusleioa salgai ez izan... Adibidez, guk erakusleioan daukagunak magia-sentsazioa adierazi nahi du eta horrek jendea erakarri du dendara ikustera. Eta dendara inoiz sartu ez den jende asko ere sartu da aurten. “Jo,

denda polita hau”, esan didate batzuek.

Derioko dendari askok hartu dute parte lehiaketan; hitz batzuk eurentzat?

Aurreko urteetan baino erakusleio politagoak jarri dira aurten. Jendeak lan egin du eta igarri egin da. Hala eta guztiz ere, Gabonetan ez ezik urte osoan zehar ere erakusleioak lantzerantz animatu nahi ditut, izan ere jende askok Gabonetan baino ez du egiten eta urte osoan lantzea

merezi duela uste dut. Inbertsioa da.

Hurrengoa buruan duzu?

Bai, San Valentín dela eta. Diseinatuta eta guzti daukat.

Txundituta utziko gaituzu?

Ez dakit, ez da hain lan ikusgarria izango beharbada, baina polito geldituko dela uste dut. Koloreak gorria eta beltza erabiltzeko ditut... Euskarazko olerki bat ere jarriko dut.

Sondikako Harrizulatzaille taldea

“Serioago hartuko dogu aurten”

Denpora gitxi daroe harriak zulatzen, baina aspaldian hasi ziran herri kirolean. Izan be, **Sondikako Harrizulatzaille Taldeak** antolatu dau urtar-rrilaren 21an Erandion egin dan “urrezko aizkora” proba. Ondo pasatzeko asmoagaz, igazko emaitzak hobetutea dabe helburu. Horren barri emon deuskue Unai Ibarrek eta Urko Real de Asuak.



Testua: Gaizka Eguskiza / Argazkiak: Sondikako Harrizulatzaille taldea



Zelan jaio zan taldea?

Igaz hasi ginan harrizulatzaille kontu horregaz. La Arboledako jentea hasi zan animatuten, guk talde bat osatuteko eta azkenenean egin egin genduan. Esan behar da harrizulatu aurretik gizon probak, eta herri kirolak oro har, egiten genduzala zortziren bat kideren artean. Gainera, erronkaren bat dagoenean hartu egiten dogu beldur barik, bai korrika, bai bizikleta, bai ehiza, danatarik.

Nondik lortuten dozue dirua?

Aurten ez deusku inork ezer emon. Fitxa bakotxak 30 euro balio dau, barrenak 100 euro, afilatzeak 18 euro, harriak 300 euro... Gainera, arropa, esparatrapuak, takoak... Aurrekontua 180 eurokoa da, guztira.

Zelangoa da zuen prestakuntza?

Urtearen hasieran bakotxak gura dauena

egiten dau. Danok gara kirolariak eta danetarik dago taldean: sokatiran ibilitakoak, aizkolariak izan diranak... Aurten, asteen behin alkarregaz entrenatuko dogu, Unairen Olako baserrian. Ariketak ez dira fisikoak izango. Kirolariak garez, bakotxa bere kontura prestatu daiteke. Beraz, harriaren ganean jarri, barrena hartu eta emon eta emon...

Zelangoak dira harriak?

Igaz bakotxak bere harriak egiten eban. Aurten, aldiz, serioago hartu gura dogunez, arauzkoak lortu doguz.

Non lortuten da behar diren harriak, barrenak eta gainontzeko tresneria?

Arroka beretik hainbat harri atera eta harri horreek ahalik eta antzekoen izaten ahalegintzen da. Barrenak eskuz eginda-koak dira. Gainera, sekretua izaten da non egiten diran, profesional mailan egi-

ten dan moduan.

Zein mailetakoa lehiaketetan hartzen dozue parte?

Denboraldia maiatzatik azarora arte doa, jaietan batez be. Harrizulatzailleok geuk erabakitzen dogu egutegia batzar batean. Euskadiko txapelketa eta Binakako txapelketa dira nagusienak. Gainera, desafioak eta erakusketak be badagoz.

Zeintzuk dira zuen helburuak?

“Txorierrin hiru zorok baino ez doguz herri kirolak egiten”

Taldekakoa behintzat azkenak ez izatea. Ea binakakoa finalean sartuteko gauza garen. Igaz Binakako txapelketan kontsolazio tanda irabazi genduan eta guretzat kristorena izan zan. Banakakoa ea norbait finalean sartzen dan. Dana dala, gure asmoa ondo pasatutea da.

“Harriak zulatzeke, teknika indarra baino garrantzitsuagoa da”

Zer behar da harrizulatzaille on bat izateko? Zer da garrantzitsuagoa, indarra ala teknika?

Burua, indarra eta esku oso gogorrak behar dira. Jakin behar dozu non eta zelan jo, barrena noraino arte altxatu, zenbat denbora jotzen dozun, indarrak neurtu... Teknika indarra baino garrantzitsuagoa da.

Txorierrin beste harrizulatzaille talde bat dago. Zelango harremana dozue hare-

Kideak

–**Jokin Torre**, Espainiako ehiza txapeldunordea eta txirrindularia.

–**Unai Ibarra**, aizkolaria, Munduko Txapelketan ibilitakoa.

–**Abel Arruza**, Europako karate finalean ibilitakoa.

–**Urko Real de Asua**, Munduko Txapelketetan ibilitakoa sokatiran.

–**Zoihartze Real de Asua**, mendigoizalea. Mont Blancen egon da.

–**Eleder Ibarra**, aizkolaria.

–**Javi Kamai**, arte martzialak.

–**Unai Atxa**, kulturista.

–**Enekoitz Mendizabal**, fitnessa.

kaz?

Harreman oso ona eta estua da, eta urte askotarako izan daitela. Lehenengo egunetik beti egon dira gure ondoan animoak emonez eta laguntzeko prest.

Gure taldekide bat azkenengo finalera tanborragaz joan zan Txorierrin taldea animatzera...

Meatzaldean inon baino arrakastatsua goa da kirol hori. Hala eta guztiz be, Iñigo Aurrekoetxea txapelduna izan da. Horrelakoek pizten dabe zaletasuna?

Nik uste dot ezetz. Txorierrin hiru zorok baino ez doguz herri kirolak egiten. Dirurik ez dagoen kirolean ez dago zaletasunik.

Zein da harrizulatzarearen etorkizuna Txorierrin?

Atzetik datorren jente gaztea ez dago zorakeriarik egiteko prest eta nire ustez, guk itxiten dogunean ez da egongo aurrea eroateko inor, ez harrizulatzea, ezta beste herri kirolak ere ez. Federazioak bultzatzen ez badau, akabo... Herri kirolak gogorrak dira eta laguntasunik ez dago; jentea aspertu egiten da.

Orratz sendagarriak

Akupuntura Txinako milurteko medikuntza da, eta gaur egun, gero eta jende gehiago baliatzen da bere ezaugarri sendagarriez. Zamudioko Errehabilitazio-Zentroko Karlos Hormaetxek zientzia horretara hurbildu gaitu.

Testua eta argazkiak: Itxaso Marina

Zelan funtzionatzen du akupunturak?

Gorputzean energia batzuk ditugu, eta gaixotasuna sortzen da energia horien artean desoreka dagoelako, hau da, energia falta edo energia larregi dugulako. Orratzen bidez oreka hori berrezartzea lortzen dugu.

Burmuinean endorfina eta encefalina ditugu eta gorputzeko edozein puntutan orratz bat sartuz gero, horiek biak aktibatu egiten dira. Endorfina eta encefalina minaren aur-

tan akupunturak gorputzean 6 eragin dituela erakutsi da: analgesikoa eta lasaigarria da, organismoaren funtzioen oreka birdoitzten du, inmunitate-sisteman eragina du, nerbio-sisteman ere eragin lasaigarria du eta mugitzeko urritasuna osatzen du.

Edozein gaixotasun trata daiteke, akupunturaren bidez?

Bai, eta gaixotasun batzuk osatu ere bai.

Hori probatuta dago, eta gaine-

“Gaixotasuna sortzen da, gorputzeko energien artean desoreka dagoelako. Orratzen bidez oreka hori berrezartzea lortzen da”



e-
gon behar dute gorputzean sartuta ondoriorik izateko. Gaixotasunaren arabera, tratamenduak era batekoak ala bestekoak dira, baita luzeagoak edo laburragoak ere. Adibide simple bat jarriko dugu: tratamenduaren lehenengo astean hiru sesio hartu behar dira; bigarren eta hirugarren astean bi sesio eta hortik aurrera, astean behin edo bi asterik behin. Gaixo kronikoek hilabetean behin edo bitan hartu behar dute.

Adibide bat: gorputzeko zein ataletan sartuko zenituzke orratzak, buruko mina kentzeko?

Buruan, besoetan eta hanketan. Baina pertsona guztiak ez gara berdinak eta kasuak banan-banan aztertu behar dira. Hau da, gaixo batek migraña hori, buruko min hori, izan dezake, bihotzean energia larregi duelako, eta beste batek, giltzurrunetan energia falta duelako. Horrela, bada, pultsua neurtzeko aparatuak erabiltzen ditugu eta horiek gorputzeko meridioetan energia falta edota energia larregi dagoela aztertzen dute. Emaizten arabera, orratzak gorputzeko atal batean edo bestean sartuko ditugu.

Edozein pertsonak har dezake akupuntura?

Bai, baina 6 urtetik beherako umeekin eta haurdun daudenekin kontuz ibili behar da, puntu batzuetan ezin zaielako orratzik sartu.

Estatuan erabiltzen den softwarearen %43 pirata da



Softwarearen % 43 pirata da; datu hori eman du AETIC Informazio Teknologien Taldeak, 2004an estatu osoan eginitako azterketaren ondorioz. Etxeko softwarea kontuan hartuz gero, maila hori askoz altuagoa da: % 80.

Horretan faktore batek baino gehiagok du eragina: batetik, ez dago batere begirunerik jabetza intelektualerako

eskubidearen alderako; bestetik, enpresek informazio gutxi izaten dute, eta, azkenik, software pirata erostea dirua aurrezteko dela uste da.

AETICek azpimarratu du zein onura etortzen zaizkien enpresei legezko softwarea badarabilte: besteak beste, kalitatea, segurtasuna, programen eguneratzea eta laguntza teknikoa.

“Kiki the nano bot” jokoa, euskaraz

Joko hau hiru dimentsioko puzzlea da eta Sokoban eta Kula-World jokoetan oinarrituta dago. Jokalariak hamalau maila gainditu behar ditu; maila bakoitzean gelatik nondik irten aurkitu behar du. Horretarako, harriak mugirazi, elektrizitatearekin jolastu edo beste nano bot batzuei aurre egin behar die, besteak beste. *Kiki the nano bot* jokoa hiru sari jaso zituen 2000. urteko uDevGame lehiaketan: irudirik onenak, orijinaltasuna eta jokorik onena. Euskarazko bertsioa www.3arrano.com web orrian eskura daiteke.

Lana topatu, lana eskaini

Lan bila dabiltzanek badute beste web orri bat: www.euskadiempleo.net. Enplegu-eskatzailerek curriculumak sar dezakete web orri horretan; enpresek ere badute euren txokoa. Lan eskaintzak gaztelaraz daude, baina euskarazko zein gaztelaniazko interfazea du orriak.

Radarrak detektatzeko tresna

Woxter Sherpa 500 GPS tresnak abiadura-radarren kokapenaren berri ematen du. Trafikoko Zuzendaritza Nagusiak zerrenda bat argitaratzen du urtero, eta tresna hori, hain zuzen ere, zerrenda horretan oinarrituta dago. Haren bidez radar finakoak zein mugikorrak detektatzen dira. Horrela, bada, autoa radarretik 500 metrora dagoenean, ahots-mezua edo distirak botatzen ditu.

Woxter Sherpa 500 GPS autoaren aginte-mahaian ipin daiteke, sistema magnetiko baten bidez. Javacomp enpresak saltzen du 199 eurotan.

Ibon Koteron, albokeroa

“Alboka baizen ezezaguna da albokeroa”

Ibon Koteron Bilbon jaio zan 1967. urtean, halkan be, urte batzuk egin ditu Derioko Txorierri Institutoan irakasten. Musikariak “Airea” disko barria kaleratu dau Elkar diskoetxeagaz.

Zerk bultzatu zinduazan alboka joten ikastera?

Ezerk bere ez. Bilboko Txistu, Alboka eta Pandereta Akademian eskolak egozala jakin, eta hara abiatu nintzan. Zale batzuk biltzen gintzazan hantxe, baina geure kabuz ikasi behar. Hiru hilean menderatuta neukan erreperitorio tradizionala.

Leon Bilbao eta Txilibrinen oinordeko...

Ondoren folk taldeen erreperitorio barriari ekin neutsan, baina zaharren estiloa emonez. Eta hori be gitxi zanez, asmatzen hasi behar: ahots bitan joteko aukerak topera aprobetxatu, digitazio barriak erabiliz... Bide luze horretan Kepa Junkeraren laguntza ezinbestekoa izan da eta bion aporta-

soinu tresnen irakaspena.

Zer suposatu eban 1996an argitaratutako Leonen Orroak diskoak?

Horrek iraultza ekarri eutsan albokari: doinu barriak, instrumentazio eta giro barriak eta disko oso bat albokaren inguruan. Oraintsu arte erreperitorio horretatik bizi dira albokeroen kale joaldiak.

Airea izeneko disko barria bidaia bat da...

Zortzi urte igaro dira disko bien artean. Jadanik zerbait barri esateko gura neukan..., urteetan prestatuturiko doinu barriak etab. Kepa arduratu da produkzioaz eta bere ikuspegi unibertsalistea emon deitso. Diskoa entzun behar da, Armenia, Finlandia, Korsika, Sardinia eta beste soinu tresnekiko loturaz jaubetzeko.

Testu eta argazki askok erakusten dabe alboka ulertuteko neure era eta haren jatorriaz hipotesi ausart bat be egin dot.

Alboka haize barriz hornitu ondoren, zeintzuk dira zure hurrengo proiektuak?

XXI. mendera arte iraun badau albokeak esfortzu ikaragarri bati esker izan da. Teknologia barriez baliatu behar dogu aurrera jarraitzeko. Ikasbide multimedia

“Tematiak gara eta borrokan jarraituko dogu, alboka kontzertuak zerbait normal izan arte”

zioaz aberastu da alboka. Halandabe, alboka baizen ezezaguna da albokeroa.

Alboka eta beste herri soinu tresnak ikasteko aukera izateko, Lur-Soinuak Musika Eskola zabaldu dozue...

Kepa eta biok hasi gintzazanean, aukerak, eta ikasteko zein irakasteko egoera oso eskasak ziran. Geure eskolagaz, falta jaken duintasuna emon gura izan dautsegu herri



**Testua: Gaizka Peñafiel
Argazkia: Aitor Koteron**

bat eskura dago, Argentinan be alboka ikasi ahal izateko, pantaila berean agertzen dira partitura, doinua eta digitazioa. Baina agertoki guztietara alboka zabaltzea be beharrezkoa da: boskotean dodan kontzertua zerbait barria da eta bakarra munduan. Gatx dago, baina tematiak gara eta borrokan jarraituko dogu, alboka kontzertuak zerbait normala izan arte.



Slovenija, oporretarako leku ezezagun bezain atsegina

Iaz arte ez nintzen gai Europako mapan Slovenija, edo Eslovenia, kokatzeko. Sarritan nahasten nuen Eslova-kiagaz (Txekiarekin batera ikasi genuena). Baina ez, Slovenija egon badago eta Jugoslavia ohiko estatu in-dependentea da 1992tik hona, komunikabideetan ia i-noiz agertzen ez den lurraldea.



Bled lakuaren ikuspegi ederra

Izan ere, kasualitatez joan ginen bertara. Bost egun Pragan egin ondoren Kroazia zen helmuga. Slovenija gurutzatu behar eta kan-pina hartu genuen gaua pasatzeko. Ur ter-malak dituen Ptuj herrian, Drava ibaiaren ondoan. Gauza da herria eta bertako igerile-ku eta instalazio termalak oso gustukoak izan genituela, eta gau horren ostean beste

bat etorri zen, gero beste bat, eta, azkenean, Kroazian sartu barik itzuli ginen etxera opo-rrak amaituta.

Zer da Slovenijatik erakarri gintuena? Inguru dotorea, menditsua, tarteka lautada berde-berdeak dituen, herriak politak eta zainduak, jendea atsegina, jateko ondo, kan-pinak eroso eta garbiak, ez da garestia, turis-

mo masifikaziorik ez (oraingoz)... Erraz bisita daiteke ondo asfaltatutako bideetatik.

Mendia gustatu ezker, edonon aurkitu arren, iparraldeko Juliotar Alpeak dira ibilie-nak.

Hiriburuak (Ljubljana) erdigune dotore eta lasaia du, Sava erreka baxterretan.

Oso ezagunak dira leizeak. Postojnako-etan orduro milaka pertsona sartzen dira bagoietan, eta, lurpetik kilometroak egin ondoren, oinez jarraitzen da. Itzela. Beste batzuk (Skoajan) ere bisitatu genituen, are ikusgarriagoak.

Zirrarak handiena eragin zigun parajea Bled lakua izan zen. Herria, alde batean; bestean, kanpin handia; goian zaindari, gaz-telua, eta, azkenik, irla txiki bat, erdian. Uretan gondola antzekoak baino ez dabil-tza. Espiritua lasaitzeko leku aproposa.

Kosta txikia ere badu, baina laster egin genuen alde, jendez gainezka zegoen eta.

Bizi mailak harritu gintuen, beharbada beste ideia batekin joan ginelako, baina gurearen pare edo gainetik dagoela esango nuke. Esloveniera da haien hizkuntza, baina ingelesa askok ezagutzen dute. Eguraldiari dagokionez, denetarik izan genuen: euri jasak eta eguzki egunak.

Hasieran Eslovenia ezezaguna dela aipatu arren, laster egiaztatu genuen euskal-dunontzat ez dela horren ezezaguna. Ia egu-nero aritu ginen euskaraz hemengo jendea-rekin.

**Aurreko
galderaren
erantzuna:**

Erromerian.

Irabazlea:

Beatriz Garcia.

Sukaldaritza

Etxeko sukaldaritza

Zankarroï egosia, arrautza-urunetan pasauta (albardauta)

Osagaiak 5 laguntzat:

- Zankarroï kilo bat
- Arrautza
- Uruna
- Kinpula bat
- Tomate egina
- Oliba orioa
- Gatza

Prestatzeko era:

Egosi zankarroia hari

edo firu bategaz lotuta eta gatza eginda (garbantzuakaz batera edo egosten badogu, askoz hobeto), eta, hotzitzen danean, xerrak, tajadak, egin. Gero urunegaz eta arrautzeagaz pasau, prijidu eta kazuelan itxi. Orio hau aprobetxatuz saltsea egin: kinpula bat txikitu, eta

gorritu edo doretan danean, bota koilara bete urun. Apur bat gorrituta gero, bota saldea edo ura, tomate txorrostada bat eta egin gatza. Euki su txikian 10 minutuan, pasau txinotik, bota kazuelara eta euki dana bost minutuan edo irikiten, eta listo. On egin!



Mari Tere Onaindia

Gazta tarta



Aurregoiti jatetxea, Loioa

Basea egiteko osagaiak:

- 100 g. gaileta Maria (irinduak)
- 50 g. gurin

Tarta egiteko osagaiak:

- 150 g. Brie gazta

- 150 g. Philadelphia gazta
- 150 g. azukre
- 150 g. esne-gain likido
- 150 ml. esne
- Gelatina neutro sobre bat
- Magurdizko marmelada

Basea egiteko era:

Gaileta irinduak eta gurina nahastu, ore homogeneous lortu arte. Hogeita lau zentimetroko molde batean oreazabaldtu eta gorde egingo dugu.

Tarta egiteko era:

Gelatina 75 ml esne epelean diluitu eta gorde egingo dugu. Beste alde batetik, esne-gaina eta 75 g. azukre nahastu eta hori ere gorde egingo dugu. Gainontzeko osagaiak su motelean xehatuko ditugu buruntzali batean, irabiagailuak lagunduta. Dena ondo lotuta dagoenean, esne eta gelatinarekin egindako nahastea gehituko diogu. Ondoren, esne-gain harrotua botako dugu, pixkanaka-pixkanaka. Tarta-basearen gainean jarri eta hozkailuan ordu bitan izango dugu, mamitu arte.

Magurdizko marmelada minutu batean epelduko dugu mikrouhinean. Ia hotz dagoenean, tartan zabaldtu eta hozkailuan sartuko dugu.

LIBURUAK

Lau ipuin Matteomiglia.

Karlos Linazasoro.

Hamabi urtetik gorakoek Matteomigliar herrian gertatzen diran istorio fantastikoak ezagutzeko aukera izango dabe

Nikolas Txikiren abentura ezezagunak

Amona basoan galdu zenekoa

Arantxa Iturbe.

Karakolaren barruan

X. Mendiguren

Kixmi elurpean

Arrate Egaña

Nerabeak protagonista dira liburu honetan. Gabon zahar baten gertatzen dan abentura kontatzen da.

MUSIKA

Begoñako XXXIII Aste korala

Odala sutan. *Idi Bihotz*

Jaio.Musika. Hil. *Berri Txarrak*



Bakoitzari berea. *Lor*

Hotelero kantuak. *Asier Serrano*

Herri kanta ttikiak. *Josune, Javi López*

DENBORA PASA

LETRA ZOPA

A	S	Z	E	L	A	R	E	F	R	O	H	G
T	A	E	X	T	A	L	O	M	E	R	R	E
Ñ	R	A	I	B	K	Z	E	H	E	F	B	T
X	I	Y	T	N	D	H	J	K	P	P	X	Ñ
U	P	S	E	F	U	Y	O	D	A	S	O	K
J	A	D	I	N	Z	A	M	P	G	Y	G	B
H	R	U	G	F	B	O	X	A	N	T	J	R
B	R	L	D	A	Z	T	A	K	A	R	E	B
A	E	B	D	M	U	K	R	H	B	F	X	A
B	P	N	E	X	Y	S	R	I	O	U	J	N
K	I	M	P	U	L	L	E	A	A	O	Y	R
F	P	U	J	L	S	K	D	L	D	L	Z	M
Z	M	T	I	U	H	N	I	E	N	M	G	P

K	A	P	E	S	K	I	L	A	S	O	A	B
U	L	A	Y	R	B	E	U	F	G	Y	H	A
R	T	A	A	P	D	B	K	H	E	J	R	S
A	G	O	L	E	X	F	T	S	L	X	A	O
O	Z	A	E	X	T	O	L	I	M	A	Y	L
L	T	B	U	S	K	A	D	R	R	J	X	L
L	S	B	D	B	I	T	E	R	U	G	P	A
O	L	F	E	H	D	P	O	N	S	I	Y	R
S	M	J	I	P	J	G	T	M	J	F	O	R
O	Y	G	S	I	O	Ñ	X	Y	O	Z	A	
M	K	U	R	L	I	N	K	E	A	Z	N	L
S	N	N	L	N	M	K	Z	L	K	E	H	H
R	X	O	M	D	I	G	Ñ	Z	N	M	O	F

Aurki itzazu goiko letra-zopan soloan aurkitu daitezkeen **7 landareen izenak***. Kontutan hartu Txorierrin esaten dan eran idatzita dauzela.


* "Derioztarren euskara" liburutik jasoak.

Ezkerraldean AIKOR! 44. zenbakiaren letrazoparen erantzuna. 7 txorien izenak Txorierrin esaten dan erara idatzita.

euskal herriko d-generazioa

Zer egiten du Olentzerok gaur egun? Zera? Zein da bere ogibidea?

Aspaldian, mendian ikatza egiten zuen. Baina gaur egun, erregaien krisia dela ta, herrian denda bat zabaldu omen du. Alaba kalean dago, hurbilduko gara??



Antzerkia eta filmak

Sondika

–*Herbie a tope*, otsailaren 5ean; *Los 4 fantás - ticos*, otsailaren 12an; *Héroe a rallas*, otsailaren 19an eta *Los Daltons contra Luky Luke*, otsailaren 26an. 18:00etan, Kultur Etxean. *Leticienta*, Yokarangu taldearen eskutik. Otsailaren 10ean, 20:00etan, Kultur Etxean. –*Robin eta Hood*, Gorakada taldearen eskutik. Otsailaren 24an, 18:30ean, Kultur Etxean.

Zamudio

Million Dolar Baby, otsailaren 5ean; *La que - rra de los mundos*, otsailaren 12an; *Sin city*, otsailaren 19an eta *Star Wars: la venganza de los Sith*, otsailaren 26an. 18:00etan, dorretxean.

Lezama

Umeentzako antzerkia, otsailaren 24an, goizean, eskolan.

Erakusketak

Sondika

–“Poesía e ilustración”, Mihail Emintscu poetaren ilustrazioak. Otsailaren 1tik 28ra.

Zamudio

–“Begiradak” argazki erakusketa, Ivan de la Fuenteren eskutik. Otsailaren 10etik 25era, dorretxean.

Lezama

–“Palestina”, otsailaren 6tik 12ra, Oxan-

goitik antolatuta. Elkartearen egoitzan. –Erakusketa ibiltaria: Telefonía eta Internet, otsailaren 15tik 19ra, Kultur Aretoa.

Hitzaldiak

Lezama

–“Palestina”, Igor Urrutikoetxearen eskutik. Otsailaren 10ean, 20:00etan, Kultur Etxean. Oxangoitik antolatuta.

Irteerak

Sondika

–Montmelo zirkuitura, Formula 1 Txapelketa (maiatzaren 12tik 14ra). Izena emateko epea: otsailaren 6tik 10era, liburutegian.

Derio

–Hernaniko Larre-Gain sagardotegira. Otsailaren 11n, 18:30ean, Txepetxa AEK eskalategiak antolatuta.

Zamudio

–Ranero (Karrantza), Pozalaguako kobak. Otsailaren 12an, Arroeta taldeak antolatuta.

–Alto Campo/Valdezcaray. Otsailaren 26an, Arroeta taldeak antolatuta.

Musika

Zamudio

–Kamara Korralaren kontzertua. Otsailaren 9an, 20:00etan, Begoñako basilikan.

Ospakizunak

Sondika

–Zuhaitz Eguna. Otsailaren 26an, 10:30etik aurrera. Tailerrak Goronda Beko kiroldegian, zuhaitz landaketa, opari banaketa, umeentzako jolas-parkea...

Zamudio

–Santa Ageda, otsailaren 4an. –Zuhaitz Eguna, otsailaren 14an, eskolan eta ludotekan. Erakusketa, puzgarriak, jolasak... –Inauteriak, Otsailaren 24an. Mozorro lehiaketa, tailerra eta karaokea, 17:00etatik aurrera, ludotekan. –Inauteriak, Otsailaren 25ean. Tostada lehiaketa eta dantza Luhartz taldearekin, 17:30etik aurrera, Adintsuen Etxean. –Sasimartxo, otsailaren 25ean. Ibilbide bide egingo dira: bata 9:30ean eta bestea 11:00etan, Arroeta taldeak lagunduta.

Bestelakoak

Sondika

–“Jon Deuna jaiak 2006” Kartel Lehiaketa. Arauak udaletxean eta liburutegian, otsailaren 20tik aurrera. Lanak aurkezteko azken eguna: martxoaren 24a.

Derio

–Kantuz, ostiralero, 19:00etatik 20:00etara, Tximintzek antolatuta.

Lezama

–Informatika eta Internet ikastaroetan izena emateko epea. Otsailean zehar.